

BEZEROEKIN HARREMANAK

Gure bezeroak, ofizinetako langileak, unibertsitateko ikasleak edota ikasleak jeneralean, etxetik lan egiten duen jendearentzat... izango lirateke. Interesgarri eta erakargarria iruditzen zaion edonori ere bideratuta egongo litzateke noski. Gehienbat lehen aipatutako horiei bideratuta egon daitekeela penstatzen dugu, azken finean, dokumentuak inprimatzera bidaltzea edo inprimatzeak denbora dexente kentzen duelako. Nahiz eta bezeroak aipatutako hauek izan, gure merkatu objektiboa ordenagailu egileak izango lirateke beraiekin elkartu eta gure ideia sortu ahal izateko (HP, acer, lenovo...)



Bezeroekin harremanetan egoteko hainbat bide edukiko ditugu, alde batetik webgune bat sortuko dugu, non bertan produktuaren inguruko informazioa egongo den, beharpenak daudenean bertan argitaratuko dugu, bezeroen feedback-a jasotzeko gune bat izango du... Bestetik, sare sozialak sortuko ditugu, bertan ere zuzen-zuzeneko harremana izango genuke, bai instagram bidez, bai facebook bidez eta baita tweeter bidez. Gainera, telefono zenbaki bat edukiko genuke, bezeroarentzako arretarako non whatsapp-a eta deia erabilgarri egongo litzateke gertutasun handiagoa edukitzeko. Edozein zalantza, ekarpen edo arazo balego baliabide hauek edukiko genituzke.



Honekin esan nahi duguna da, harreman mota ezberdinak eskaini nahi dizkiegula bezeroei, ahalik eta erraztasun gehien izan ditzaten. Pertsonala, aurrez-aurrekoa, automatizatuak, web-aplikazioak edota erantzungailu automatikoak erabiliz.

Askotan, produktuarekin lotutako zerbitzuen gaineko ideiak ematen dituzte bezeroekiko harremanek, eta horrek diru-sarrerak sortzen ditu. Horregatik, salmenta ondorengo zerbitzuak eskainiko ditugu, esate baterako, produktuarekin arazorenbat badago; produktua apurtzen bada guk konpondu ahal izateko.

Esan bezala, bezeroak gure proposamenari lotuak mantentzeko sare sozialak erabiliko ditugu eta bertan argitaratuko ditugu produktuarekin loturiko albiste eta berri ezberdinak, bai beharpenak badaude, bai eskaitzarenbat badago...

Harpidetzak egitea pentsatu dugu, horrela produktu berrirenbat saltzen hasten bagara, beharpenak izango lituzkete, gainera harpidetuak baleude, konpokatetan beharpenak edukiko lituzkete.